

SIMONE VEIL PASTORALA

PRENTSARI AURKEZPENA

Nº 78651



1927-2017

BATITTE BERROGAIN
2018

(MUSKILDIN, 2022-01-15)

Prentsa agiria (2022/01/15)

Simone Veil pastoralara, Muskildin

« Simone Veil » pastoral xedea Muskildin

Badü 30 urte ez dela pastoralik izan herrian. 2017. urtean, « Hur Xenda » ikusgarria taularatürik izan zen. Urte bat berantago, herriko gazteek maskaradak antolatü zütüen. Aurten, pastoral xedea бүрүтzen ari zaikü herrian, « Simone Veil » trajeria.

Pastoral honen bidez, XX. menteko emazte baten bizia ezagütarazi nahi dügü, engaiatürik eta balore ünibertsal azkarren mezülari izan dena.

Simone Veil süjet egokia üdüritzen zaikü, izan konzentrazio zelaietan bizitü düan trajeriarengatik, izan emazteak beren korpitzaz jabe izateko eraman dütüan güdükengatik, izan jüstizia sailean egin düan lanarengatik, edo izan Europako Batarzüneko herrialdeen artean anaitarzünaren azkartzeko üken düan nahiküntearengatik. Horrengatik bere bizia, konpromisoz aberatsa, taularatzen ahal da pastoralaren kodeak errespetatüz.

Audela, Simone Veilen bizia eredü bat izan behar da guretako. Battite Berrogain idazleak erraiten düan bezala, erne egon behar dügü autoritarismo arriskü ororen aitzinean.

Hirukote bat pastoralaren joanarazteko

Muskildiko herria abiatzen da beraz Batitte Berrogainek idatzi düan « Simone Veil » pastoralaren emaitera, Veil familiaren baimenarekin.

Trajeriaren taularatzea Maite Davanten gain ützi dügü; errejent kargüa ükenen dü Batitte Berrogain idazlearen gerizapean.

Sophie Larrandaburu pastoreko kantoreen eramailea date.

Mustrakak 2022ko urtarrilaren 8an hasi dira eta kargüak banatürik dirate barantaila erditsütan.

« Simone Veil » pastoralaren agerraldiak

Pentsatü dügü « Simone Veil » pastoralaren hiru agerraldiren egitea, Muskildiko herrian :

- 2022ko üztailaren 24an, igantea, 15:30ean,
- 2022ko üztailaren 31n, igantea, 15:30ean,
- 2022ko agorrilaren 6an, neskenegüna, 15:30ean.

Antxerak eginik izanen dira lehen bi agerraldietan.

Emanaldi bakoitxarentako badate 1500 bat lekü. Prefosta, antolazaleak egokitüko dira Covid-19aren kontre hartürik izanen diren segürtantxa neürrier.

« Simone Veil » pastoralaren afitxa lehiaketa

Lehiaketa bat antolatzen dugu « Simone Veil pastoral » afitxaren hontzeko.

Afitxa hortan agertu beharko dira herria, agerraldien egünak eta tenorea.

Lehiaketaren araudia eskualatzen ahal da ondoko helbideak idazteaz : simoneveilpastorala@gmail.com

Obrak 40x60 cm ko « portrait » formatuan igorri beharko dira Muskildiko Herriko Etxeala edo Interneten bidez, **martxoaren 15a beno lehen**.

Page Facebook « simoneveilpastorala »

Facebook orrialde bat sorrarazi dugu komunikatzeko. Informazio desbardinak edireiten ahal dira pastoralaz : Simone Veilen biografia bat, afitxa lehiaketaren araudia, bideoak eta argazkiak.

SIMONE VEIL PASTORALA

Prentsari aurkezpena

Idazlea : Batitte Berrogain



Batitte Berrogain (1966, Urdiñarbe) euskal kùltùran sartù zen ttipitik. Zùberoako haur hanitx bezala, lehen dantza ùrratsak egin zütüan Erramun Tartachu dantza erakaslearekin.

Egün batez, bere osabak bere gitarra eta txülüla ahatze zütüan beren etxen. Horri esker züen Batittek eta bere anaiak ikasi müsikan aritzen, berak.

17 urte düanaz geroz, pastoral andana batetan parte hartü dü : lehenik dantzari bezala « Agosti Xaho » pastoraletan Urdiñarben eta arizale bezala « Iparragirre » (Urdiñarben 1999an) eta « Xiberoko makia » (Sohütan 2001ean) pastoraletan. Gaineala, errejent izan da

« René Cassin » (Sohütan 2013an) pastoraletan eta Jean-Louis Davant euskaltzainak idatzi düan « Abdelkader » pastoraletan (Ürrüstoin 2020-2021ean).

Bestalde, maskarada zonbaitetan ere parte hartü dü, dantzari bezala lehenik Urdiñarben 1993an, eta eramaile bezala Sohütan 2003an eta 2015ean, eta Urdiñarben 2006 eta 2019an.

Sonügile eta konpositore da ere, eta « Musik'Alde » müsika taldean ari da; 2009az geroz, talde hori da pastoraletako müsikaz ardüratzen.

Zentako idatzi « Simone Veil » pastoralala ?

2017an zentü zen Simone Veil, kasik 90 urtetan, Orotan aipatürik zen, telebista, egünkarri irratietan, frantses ikonoa, exterminazio zelaietarik bizirik elki zena, emazten eskübiden güdaria, politiko anderea.

Nik, güti banaküan Simone Veil-etzaz, Ordü haüetan, Simone Veil enetako zen, andere bat itxüras hotz, begitartez gogor, esküintiarra, bena küriositateak txixtatü nüdüan.

Alkarrizketa bat behatü nüan, bideo bat sogin, Arte telebistan, non ere aipatzen zütüan, Auschwitz zelaia, « la marche de la mort », liberazionea, bere ahizpak Milou eta Denise, ahizpak, aita eta amak eta Jean anaia, ahatze gabe 6 milioen jüdioen arimak oritzapenaren zaintzalea.

Botza ikara batekin ari zen, elea ez aisa elkitzen...begia argi, zinez hunkigarria agertü zeitan eta ber denboran, zinez hürrün, üdüri zeitadan emaztetik.

Personaje berri bat agertü ordüan, sensibilitate handikoa, bihoztoi, ümila, ezpiritüz libre.

Geroztik, lau libürü irakurri dütüt, INA-ko bideo zer nahi ikertü, gosea ezin eten.

Hobeki konprenitü nüan ze emaztea zen entelegatü ondoko ze neskabila izanik zen, Simone Jacob

Ari nintzan : « Ze pastoralala bagünükean hor !!!! »

Pastoral aktür izanik, pastoreko soinu egile, errejent, nahi nüan ere ezagütü idazlearen aldea, kunprenitü nola kontzebitzen den antzerkia, nola altxatzen den historia, ikerketa lana, ze sentimentü ekarten deikün, ze mezü hegaltarazten deikün.

Sinpleki idatzirik, ümiltarzün handi batekin, jakitez idazle kasketa handiegi nükeala.

Hola ürrentzen da ene ostoia, andere handi baten ezagütza eginik, bere intimitatean sartürik, boztarioz beterik, libürü handi baten azken ostoia üngüratzen banü bezala.

Hona, Simone Veil anderea nola entelegatü dütan, pastoralaren bahean iganik .

«Simone Veil était au-dessus de la médiocrité et de la méchanceté du monde»

« Mündüko gaixtozeria eta eskazkeria bena gorago zen Simone Veil »

Jean d'Ormesson

Errejenta : Maite Davant



Maite Davant (1973, Ürrüstoi-Larrabile)

Xiberoan bada hogeit bat pastoral idazle; errejent gütiago aldiz. « Simone Veil » pastoralak parada emanen deio errejent-gei bati lekükoaren hartzeko. Maite Davanten gain ützi dügü errejentgoa.

Ürrüstoi-Larrabileko sortzez, ttipitik eta familiaren bidez ezagütü dü Züberoako herri antzerkia. Lau pastoraletan parte hartü dü, lehenik satan bezala « Abbadia Ürrüstoi » pastoralean Maulen, eta ondotik arizale bezala ondoko trajerietan : « Antso Handia » (2004an) eta « Belako Zaldüna » (2018an) Maulen eta azkena, bere sorterrian, « Abdelkader » (2021ean).

Maskaradetan ere parte hartü dü hala-nola 1996an Mitikilen kantiniarsa bezala, eta 2011n Xiberoko Ikasle Ohien maskaradetan xorrotx bezala.

Eüskarari etxekirik da eta pastoral zinez maite dü; horik dira errejentak üken behar dütüan gaitarzünak testuaren zentzüaren barnatzeko eta emozioneen igaranazteko. Audela, pastoral da eüskaraz bizitzen den herritarren arteko abentüra bat.

Ere, Batitte Berrogainen aholküak jarraitzen ahalko dütü bere lehen ürratsetan.

Kantoreen moldazale eta eramailea : Sophie Larrandaburu



Sophie Larrandaburu (1977, Barkoxe)

Barkoxeko sortzez, Sophie Larrandaburu ttipitik murgiltü da müsika eta kantorearen mündüan, eta müsika erakasle bilakatü da lanbidez.

Züzentü züan lehen gizonen abesbatza izan zen Baionako « Haiz’egoa kantuz »; ondotik « Buhaminak » emazte koralaren lehen züendaria izan zen, berriki 20 urte ospatü düana. Egünko egünean, Sophiek « Bestela » gizon taldea züzentzen dü.

Ere, bere sorterriko ikusgarrietan parte hartü dü, lehenik arizale bezala « Herriko Semeak » pastorealean 1998an, eta ondotik koro züendari bezala « Xahakoa » pastorealean 2010ean, eta « Laubürü » (2002) eta « Dantz’Haka » (2017) sorkuntzetan.

Bestalde, Züberoako pastoral andana batetan bere lagüngoak ekarri dü, kürren züzentzen eta ahaideen moldatzen, hala-nola , « Xiberoko Makia » Sohütan 2001ean, « Antso Handia » Maulen 2004an, « Jesus pastora » Mauleko San Frantses kolegio-lizeoko ikasleekin 2006an, « Santa Engrazi » ber urtean, « Jose Mendiague » Arrokiagan 2012an, « Katalina de Erauso » Baionan 2016an, « Andere Serora » Hiriburun 2018an, « Domingo Garat » Pagolan 2019an eta « Abdelkader » Ürrüstoi-Larrabilen 2020 eta 2021ean.

Dantza erakasleak : Iban Etxegoinberri eta Rémy Mugordoy



Muskildi eta Urdiñarbeko sortzez, Iban eta Rémy ttipitik murgiltü dira dantzaren mündüan. Bi herri horietako dantza eskolan ikasi zütüen lehen ürratsak. Geroztik bi herri-aüzoetako maskaradetan parte hartü düe bena bai eta ere, ikusgarri desbardinetan hala-nola « Ametsen gillika » 2016an, « Hur Xenda » 2017an, « Üda batez » 2018an, « Laida pilota » 2019an eta « Kautere balet ». Egünko egünean, « Kabalet » taldean ari dira eta orai, beren helbürüa da « Simone Veil » pastorealeko dantzarien eskolatzea.

Simone Veil (1927-2017)



Simone Veilek egiazko trajeria bizitü züan bere bizian. Auschwitz-Birkenauko konzentrazio zelaietako bortizkeria eta itsuskeriak hüilaretik ikusi eta senditü zütüan 17 urterekin. Gerla ondotik, ikasketak berri hasi zütüan eta magistratürgoan hasi zen lanean. Bere bizi osoan, jenteen eskübideen alte borrokatü zen : jüdioen memoriaren errespetarazteko, emazteen eskübideen galtatzeko, presoen bizi baldintzen hobetzeko, familiaren züenen defenditzeko, bakearen alte Europako Batarzünean... Errespetüa merezi dü bere biziaren lekükotarzünak.

Haur denborako irustarzüna

1927. urtean sortürrik, Mündüko bi gerla handien arteko giro nahasian handitü zen Simone Jacob. Halere, haurtzaro goxoa bizitü züan familia jüdio ez pratikante batean.

Mündüko Biggerren gerla hasi zenean, bere familiarekin Nice herrialat joan zen bizitzera.

Nazien exterminazio zelaietan

Hamasei urte züalarik eta baxoa berriki ükenik, aleman soldaduek arrestatü züen. Oren zonbait barne, bere familia osoa presontegiratürrik izan zen eta Drancyko igaraite-zelaian zerratürrik. Hantik treinak konzentrazio zerrategietarat abiatzen ziren. Aita eta Jean anaia ez zütüan sekülan haboro ikusiko.

Bere ahizpa eta amarekin, Auschwitz exterminazioa zelaialat igorririk izan ziren. Han, hamahiru hilabete oso ülün igaran zütüen. Astez aste, milaka jüdio heltzen ikusi züen, hiltzen eta korpitz erreak ketan joaiten.

1944. urtean, naziak zelaia hüstü zütüen errüsiarrak hüilantzen ari beitziren. Baratzten ziren jüdioer 70 kilometro hoinaz eginarazi zeitzen karruaren gainean. Milaka jüdioek bizia galdü züen « heriotzaren martxa » hortan. Simoneren ama typhus eritarzünak jorik hil zen liberazionea beno hilabete lehenago. Bi ahizpak Pariserat sartü zirelarik, ohartü ziren nehorek ere ez züala bizitü züenaren berri entzün nahi. Sofrikario horrekin bizitü behar üken düe bizi osoan.

Gerla ondotik, ikasketak jarraitzen

Gerlatik landa, züenbide ikasketak jarraiki zütüan eta hogeitun urtetan Antoine Veilekin ezkontü zen, hiru seme üken züen. Betidanik, bere amak akülatü züan ikasketa egitera eta lanean aritzera.

Jüstizia ministeritzan magistratürgoan hasi zen lanean, taigabe Frantziako presontegien ützüla egiten züan presoneren bizi baldintzen hobetzeko eta bereziki emazteenak.



Osagarri Ministro Anderea

1974. urtean, Valéry Giscard d'Estaing-en kargüaldi denboran, Jacques Chirac-en gobernüan sartü zen. Osagarri ministro gisa, 1974. urtean ilortzea arautü züan legea defendatü züan frantses legebiltzarrean. Laidoak entzün eta mehatsüak üken zütüan ordüan, eta funtsean bizi orotan ere.

Europaren бүрү, bakearen alte

1979. urtean, Europako Parlamentüko lehen lehendakaria bilakatü zen; lehen aldikoz zen bozkaz haütatzen. Lan handia egin züan Frantzia eta Alemaniaren adiskidetarzüaren alde, bere ustez Europan bakearen bermatzeko ürratsa beitzen.

Geroztik bere bidea jarraiki züan politikan Edouard Balladur-en gobernüan 1993. urtean eta Konstitüzio kontseilüan 2007. urtealart artino.

Izkiribatü, jakilegoa ekarri

2007. urtean *Une vie* libürüan bere bizia kontatü züan, kurajez eta esperantzaz beterik den kontakizün hunkigarria. Engaiamentü hanitx hartü züan bere bizian : jüdio, emazte, presoner, familia, jüstizia, bakea Europan...

2010. urtean, Frantses Akademian sartü zen.

Shoah memorioaren fondazioaren lehendakari gisa, mündüaren gainti ebili zen jüdioen deüseztatze planoaren berri emaiten, bere lekükotartzüna ekarriz.

2017. urtean zentü zen, geroztik bere senarrarekin Pantheon pausa-leküan datza.

Bibliografia, libürü zonbaüt...



- *Une vie*, Simone Veil, 2007;
- *Les inséparables*, Dominique Missika, 2018;
- *Les hommes aussi s'en souviennent*, Simone Veil, 2018;

- *L'immortelle*, BD de Pascal Bresson et Hervé Duphot, 2018;
- *Simone Veil Les discours d'une vie*, Simone Veil;
- *La force de la conviction*, Jocelyne Sauvard, 2012;
- *Simone éternelle rebelle*, Sarah Briand, 2017.

Afitxa sorkuntza lehiaketa

1. artikulua : lehiaketaren helburua

Afitxa lehiaketa bat antolatzen dugu pastoralaz komunikatzeko.

Autore eskübideak errespetatü behar dütü parte harzaleak, bere obra propioa presentatüz. Simone Veilen argazkiak baliatzen badira afitxan, parte harzaleak segürtatü behar dü argazkiaren eskübideak libre direla edo zehaztü behar dü zonbat koste lizatekean horren baliatzea.

2. artikulua : afitxaren ezagütgarriak

Afitxa A2 neürriko portreta formatüan edo 40x60 zentimetroko formatuan aurkeztü beharko da. Afitxaren aldepean, hiru zentimetroko lekü hütsa ützi behar da logoen ezarteko.

Ondoko testua argiki agerrarazi beharko da afitxan :

Simone Veil pastoralara 2022an
Muskildin
Üztailaren 24an eta 31n iganteetan
Agorrilaren 6an neskenegünean
15:30

Afitxa egileak kalitateko imprimaketak egiteko baldintzak bermatü behar dütü, hala-nola euskarri nümerikoek baldintza hauek bete behar dütüe (300 DPI gütienez eta 3mm-ko bazterra aitzin ikustea.

3. 3. artikulua : afitxen igorteko modalitateak

Afitxa « Xenda Berriak » alkarteari helarazi behar zaio 2022ko martxoaren 15a beno lehen.

- Muskildiko Herriko Etxean pausatzen ahal da zabaltze tenoretan, paperez edo USB giltz batean.
- Interneten bidez helarazten ahal da formato nümerikoan, helbide hontarat :
simoneveilpastorala@gmail.com.

Afitxa güziak presentatüko dütügü epai-mahainari eta emaitzak agertüko dira 2022ko martxoaren 30etik goiti. Irabazleak pasturaleko bi sartze eta bi bazkari irabaziko dütü.

Simone Veilen biziaz xehetarzün haboro ondoko orrialdean.

Xehetarzünak : 06 84 40 33 26 – simoneveilpastorala@gmail.com

Prentsarekin harremanak

« Simone Veil » pastoralaren hitzordüak

2022ko urtarrilean : Simone Veil pastoralaren aurkezpena, idazle, errejenta eta kantore eramailearekin.

Pastoraleko afitxa lehiaketaren deialdia.

2022ko barantailean : pastoreko kargü emaiteak.

2022ko martxo ondarrean : pastoralaren afitxa lehiaketaren emaitza.

2022ko ekain ondarrean : Simone Veilen heriotzaren 5. urtemüga.

2022ko üztailean : Simone Veil pastoralaren mustraka orokorra.

Finkatü hitzordü horietaz kanpo, Simone Veil pastoralaz, erreportaje edo alkarrizketa egiteko lagüntza ekarten ahal deizügü.

Hedatze eskübideak

Simone Veil pastoralaren jalkaldiak ez dira bideoz agerrarazten ahalko lehen emanaldia aitzin. Bakarrik zati llibür elibat hedatzen ahalko dira lehen emanalditik landa.

PRENTSA HARREMANA

BARREIX Isabela – Tel : 06 84 40 33 26

APEZETXE Edurne – Tel : 06 09 55 47 27

Mail : simoneveilpastorala@gmail.com